


## ARATZERAKO BIDEA



### **PARKETXEA AIZKORRI-ARATZ (0 min)**

Aratzeko igoera parketxetik egin daiteke, Leizarrateko edo PRA-3012ko seinaleei jarraituz edo Ajuria-Urigoitian dagoen aparkalekutik, parketxetik 200 metrora. Bidezidorra horiz eta zuriz margotuta dago, baina puntu batzuetan margo zahar gorriak eta zuriak aurkituko ditugu. Lantegiko aparkalekura iritsi baino 25 metro lehenago, ezkerretara, Aratz adierazten duen lehen seinalea dago. Hormigoizko aldapan gora igotzen da, bigarren aparkaleku batera iritsi arte.

### **APARKALEKU GUNEA (10m)**

Aparkalekuan Aratzera doan bigarren seinalea aurkituko dugu. Zuzen igoko gara aldapa amaitu arte, bagonetan aldapa bezala ezagutzen dena.



### **ARATZERAKO BIDEA (18 min)**

Bagonetan aldapa amaituta, hurrengo seinalea ikusiko dugu, jarraituko ditugu marka gorriak horiak eta zuriak seinalazituta dagoen hurrengo puntura iritsi arte.



### **BIDEGURUTZEA ITURBURUA EDO ARATZ (26min)**



Puntu honetan Aratzeko bideari jarraitu ahal izango diogu, 4,4 km-tara, edo 1 km-tara desbideratu iturbururaino. Seinale horiak dituzten zutoin berriei

erreparatu behar diegu. Goranzko bideari jarraituko diogu Aratzera.

### **BIDEGURUTZEAK ETA ARATZERANTZ (32 min)**

Hemen aukera dugu Zalduondora joateko GR25etik, Marutegiko gaztelura edo Aratzera.

Horretarako, marra hori eta zuriak eskuinetara jarraituko ditugu

### **ARATZERANTZ (37 min)**

Marra hori eta zuriei jarraituz, pagoen azpitik doan bidezidor batean gora jarraitzen dugu. Leizarrate erreferentzia izango dugu, oso puntu garrantzitsua baita.



### **ITURRIOZ ITURRIA (55 min)**



Iturriozko iturrian bidegurutzeta dago, ezkerrekoak Zumarraundira garamatza, eskuinekoak Gastazapadoi aterpera.

Aratz aldera jarraitzeko, zuzen jarraitu behar dugu gorantz. 200 bat metro egingo ditugu bidegurutze batera iritsi arte. Eskuinera hartu eta Askasadoiko zelaietaraino igoko gara.

### **ASKASADOIKO ZELAIK (1h15')**



Txaboletara iritsi baino lehen, eta bidezidorrari jarraituz, eskuinetara sartuko gara pagadian sartzeko. Markak gorriak eta txuriak ikusiko ditugu.

### **SAN-ADRIAN BIDEGURUTZEA ETA ARATZERAKO IGOERA (1h30')**

Puntu horretan, ezkerretara, San-Adrianera jaisten den bidea dago, eta eskuinetara, marra hori eta zuri horizontalek gailurreraino eramango gaituzte, Aratz mendiraino.



### **ARATZ TONTORRA (2h)**

## IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA



5km




Zailtasun ertaina



2h




841 m



## NOLA HELDU



## IBILBIDEAREN MAPA



araba  álava  
foru alundia diputación foral

## Aizkorri-Aratz Parke Naturala



AIZKORRI-ARATZ



PARKE NATURALA  
PARQUE NATURAL

AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA  
PARQUE NATURAL DE AIZKORRI-ARATZ

Parketxea – Casa del Parque  
Museo del Mitxarro-ko Museoa

Intuxi, 48 - Araia (01250) Tel: 945 386 964

E-mail: [parketxe.aizkorriaratz@gmail.com](mailto:parketxe.aizkorriaratz@gmail.com)